

ASKE-k Donostian eman diren neurri errepresiboen aurkako kanpaina abiarazi du

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 08/02/2024

Besteen artean, bi polizia-etxe berrien eraikuntza eta indar errepresiboen kopurua handitzea salatu dute.

ASKE antolakunde antirrepresiboak jakinarazi duenez komunikatu baten bidez (**Gorputz errepresiboen indartzea gelditu! (lahaine.org)**), EAJk Donostian 2 polizia-etxe berri eraiki nahi ditu hiritarren segurtasuna bermatzearen aitzakia baliatuta. Horretarako, Herrera zein Egia auzoetan polizia-etxe misto berri hauen eraikuntzaz gain, errekonozimendu faziala ezarrita duten kamara finkoak jarri. Gainera, munipak taser zein suzko armez hornitu dituzte, indar errepresiboak kameraz zuzkitu eta agenteen kopurua 450 ertzain eta 367 udaltzain izateraino igo nahi dute.

ASKE-k adierazi duenez “Euskal Herri Langilearen bizi baldintzak behera egiten ari diren garaiotan” ematen dira neurri hauek eta “delinkuentzia gisa ulertarazi nahi duten horien gorakada eta Euskal Herri Langilearen bizi baldintzen beherakadaren artean ukaezina den harreman bat dagoela gainazaleraziz. [...] Burgesiari mesede egiten dion kontsumora bideratutako aisialdi eredu aurrera eramateko erosahalmena duten horien segurtasuna bermatzea helburu duten neurriak” dira. Horrenbestez, “kontsumo gaitasun hori ez dugun langileon zuzeneko monitorizazio, pribatutasun urraketa zein zokoratzea” eragiten dituztela ondorioztatu dute.

Honen aurrean “indar errepresiboak aurrera daramatzaten kolpe errepresibo oro salatzea eta haiei erantzuteko beharrezkoak diren baldintzak” sortzea beharrezkotzat jo dute eta horregatik “jazarpena aurrera eramango duten gorputz errepresiboe aurrean antolatu eta borroka egitera” dei egin dute. Bukatzeko “Euskal Herri Langileak bere askapenerako egiten duen borroka erabat zilegi da, soilik borrokaren bitartez gaitutako baitugu Euskal Herri Langileak pairatzen duen jazarpen oro, amnistiaren eskutik burgesiaren interesetara diharduten gorputz errepresibo ororen suntsiketa lortuz” gehitu dute.

<https://eh.lahaine.org/aske-k-donostian-eman-diren>